



### NAFARROAKO PARLAMENTUKO MAHAIARI

**Dabid Anaut Peñak, EH BILDU NAFARROA** Parlamentuko Taldeko parlamentariak, Ganberako Araudiak adierazten duen bezala, ondoko **Galdera idatzia** egiten dio Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentuari:

#### Zioen azalpena

Parlamentu talde honek Muga Meategiaren jarduera baimenari buruz egindako galdera bati erantzunez, Nafarroako Gobernuak esan zuen Muga Meategia 4/2005 Legearen IIIB Eranskinen A) Ataleko 2. puntuan kokatzen dela.

Itxura denez akats bat dago aipatu den puntuari dagokionez, ematen baitu dagokion puntua IIIC Eranskinen A) Ataleko 2.c dela.

Puntu horrek honela dio, hitzez hitz:

*C) Nolanahi ere ingurumen eraginaren ebaluazioaren menpe soilik jarriko diren jarduera eta proiektuak.*

*A) Erauzpen industria.*

*2. Lurpeko meatzaritza honako ezaugarriak dituzten ustiapenetan:*

*c) Meategiak hiriguneetatik 1 kilometro baino gutxiagora dituztenak (planoan neurtuta), subsidentziaz arriskurik eragin lezaketenak.*

*Kasu guztietan minerala tratatzeko, meategietako edo aprobetxamendu mineralurgikoko esterilak aldi batez pilatzeko edo hondarrak biltzeko (zabortegiak, presak eta urmaelak edo esterilak, birrinketa plantak edo planta mineralurgikoak eta abar).*

Bistan denez, puntu hau soilik erauzketa eta birrinketa lanak egiten dituzten lurpeko meatzaritzako kasuei egiten die erreferentzia, mea eraldatu gabe alegia. Horregatik dio "ingurumen eraginaren ebaluazioaren menpe jarriko dira soilik". "Nolanahi ere ... soilik" hori ulertzeko kontuan izan behar da beste atal bateko zirkunstantziak ez direla gertatzen, Muga Meategian gertatzen den moduan.

Agerikoa da Muga Meategia Proiektuan mearen lurpeko erauzketa dagoela alde batetik, eta horrekin batera potasa eta ongarriaren ekoizpena, lurgaineko planta batean, mearen eraldaketa kimikoa eginez eta produktuak manipulatu.

Horrenbestez, IIB Eranskina aplikatu beharko litzateke:

*IIB Eranskinak, 4/2005 Foru legearen 4. Atalean, honela dio:*

*B. Ingurumen baimen integratuaren eta ingurumen eraginaren ebaluazioaren menpe dauden jarduerak. 4. Industria kimikoak.*

*2. Oinarrizko produktu kimiko ez-organikoak fabrikatzeko instalazio kimikoak.*

*d) Amonio kloruroa, klorato potasikoa, karbonato potasikoa (potasa), karbonato sodikoa (sosa), perboratoak, nitrato argentikoa.*

*3. Ongarriak fosforoaz, nitrogenoaz, potasioaz fabrikatzeko instalazio kimikoak (ongarri sinpleak edo konposatuak).*

Horrenbestez, ematen du Ingurumen Baimen Integratua eta Ingurumen Eraginaren Ebaluazioa aplikatu behar zaizkion proiektu baten aurrean gaudela, eta ez soilik IEA aplikatu behar zaion proiektu baten aurrean.

**Bat dator Landa garapeneko eta Ingurumeneko departamentua ondorio horrekin?.**

---

En contestación a una pregunta de este Grupo parlamentario sobre la licencia de actividad del Proyecto Mina Muga, ese Departamento contestó que el Proyecto Mina Muga se encuadra entre las actividades recogidas en el Anejo 3B, apartado A), punto 2 de la ley 4/2005.

Aparentemente hay un error en el punto de referencia, pues parece ser el IIC, apartado A, punto 2.c)

Dicho punto dice textualmente

*C) Actividades y proyectos sometidos en todo caso únicamente a evaluación de impacto ambiental.*

*A) Industria extractiva.*

*2. Minería subterránea en las explotaciones en las que se dé alguna de las circunstancias siguientes:*

*c) Aquéllas cuyos minados se encuentren a menos de 1 kilómetro (medido en plano) de distancia de núcleos urbanos, que puedan inducir riesgos por subsidencia.*

*En todos los casos se incluyen todas las instalaciones y estructuras necesarias para el tratamiento del mineral, acopios temporales o residuales de estériles de mina o del aprovechamiento mineralúrgico (escombreras, presas y balsas de agua o de estériles, plantas de machaqueo o mineralúrgicas, etc.).*

Es evidente que este punto se refiere a aquellos casos de minería subterránea que solo realizan labores de extracción y machaqueo, sin transformación del mineral. Por ello dice son proyectos que “están sometidos en todo caso únicamente a EIA”. Este “en todo caso únicamente” debe entenderse porque no se dan circunstancias de aplicación de otro apartado distinto, como ocurre en Mina Muga.

Es evidente que el Proyecto Mina Muga es un complejo de extracción subterránea de mineral, y producción de potasa y fertilizantes en una planta en superficie, con transformación química de los minerales y productos manipulados.

Por tanto es de aplicación el Anejo IIB.

*El Anejo IIB, apartado 4, de la LF 4/2005 dice:*

*B. Actividades sometidas a autorización ambiental integrada y evaluación de impacto ambiental.*

*4. Industrias químicas.*

*2. Instalaciones químicas para la fabricación de productos químicos inorgánicos de base, como:*

*d) Sales como el cloruro de amonio, el clorato potásico, el carbonato potásico (potasa), el carbonato sódico (sosa), los perboratos, el nitrato argéntico.*

*3. Instalaciones químicas para la fabricación de fertilizantes a base de fósforo, de nitrógeno o de potasio (fertilizantes simples o compuestos).*

Por tanto parece que estamos ante un proyecto que esta sometido a AAI y EIA, y no solamente a EIA.

**¿Comparte esta conclusión el Departamento de desarrollo Rural y Medio Ambiente?**

Iruñean, 2017ko otsailaren 15ean

Sin.: **Dabid Anaut Peña.**

**X**

---